

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y  
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO  
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN  
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Ehun bat haur nafarrek hartuko dute parte larunbat honetan Iruñean Junior Itzulian, zeina, Espainiako Itzuliaren baitan kokatuko den

*Aurretik, Lehen Hezkuntzako beste 2.300 ikaslerekin batera, txirrindularitzaren balioei buruzko hezkuntza-programa batean hartu dute parte.*

Martes, 14 de agosto de 2012

Nafarroako 12 ikastetxetako ehun bat neska-mutilek larunbat honetan, abuztuak 18an, Iruñean, 14:30etan, izango den [Junior Itzulian](#) hartuko dute parte. Gutxi gorabehera, Espainiako Itzuliko azken kilometroa korrituko dute, San Francisco plazatik Zezen Plazara, Kale Berritik, Mercaderes kaletik eta Estafeta kaletik igaroz.

Aurretik, ehun ikasle horiek Iruñerriko Lehen Hezkuntzako 12 ikastetxetako beste 2.300 ikaslerekin batera, "Aula Ciclista Junior" hezkuntza-programan hartu dute parte, Nafarroako Gobernuak eta Espainiako Itzuliko antolakuntzak berak pasa den ikasturtean zehar sustatu zutena.

Zehazki, honako [ikastetxe hauek hartu dute parte](#): San Fermin Ikastola (Zizur), Camino de Santiago ikastetxe publikoa (Zizur Nagusia), Catalina de Foix ikastetxe publikoa (Zizur Nagusia), Iruñeko Calsanz Eskola, Erreniega ikastetxea (Zizur Nagusia), Hilarión Eslava ikastetxe publikoa (Burlata); Beriaingo ikastetxe publikoa, Orkoiengo ikastetxe publikoa, Atarrabiako Lorenzo Goikoa ikastetxe publikoa, Iruñeko Azpilagaña ikastetxe publikoa, Iruñeko Monjardín Ursulinas Lizeoa eta Mutiloako Luis Amigo ikastetxea.

Horiek guztiek Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuak sustatutako hainbat programatan hartzen dute parte, esate baterako, Haur-obesitateari aurrea hartzeko kanpainan, eskola-adineko kirol-programan eta aste osasungarrian.

### Bizikletaren erabileraren aldeko kultura sortzea

Ekimen horren xedea ikasleengan garraibide gisa bizikleta erabiltzearen kultura sortzea eta gaztetxoek natur ingurunea zaintzeak ongizatearen iturri gisa duen garrantziaz jabeaztea.

Programatutako jarduerak, martxoan hasi zirenak eta Mikel Ilundain txirrindulari profesional ohiak koordinatu dituenak, ikastetxeetan bertan egin dira ikastolako ordutegian eta haietako Gorputz Hezkuntzako departamentuekin koordinatuta.

Bi saiotan, bata teorikoa eta, bestea, praktikoa, oro har, kirolaren eta, bereziki, txirrindularitzaren balioetara hurbildu dira modu atsegin, dibertigarri eta didaktikoan. Bizikleta erabiltzeko modu segurua,

osasuntsua eta dibertigarria ere erakutsi zaie, bide-segurtasuna eta ingurunea hobetuz.

### **Junior Itzulia baita Vianan ere**

Bestalde, igande honetan, abuztuaren 19an, Vianan, Junior Itzuliaren beste edizio bat ere izango da 15:00etatik aurrera, Iruñea-Viana etaparen azken kilometroan zehar, zeina, egun horretan korrituko den eta Viana-Logroño errepidean (N-111) amaituko den.

Junior Itzuliaren gainerako etapak Logroño, Alcañiz (Teruel), Bartzelonan, Sanxenxo-n (Pontevedra), Pontevedra, Ferrol (A Coruña), Valladolid, La Lastrilla (Segovia), Segovia eta Madrilan egingo dira.